

## II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

### KANPEZUKO UDALA

**Hitzarmena Ibernaloko Andra Mariaren Kofradiarekin, Ibernaloko baselizako aterpetxearen (aurrerantzean, Ibernalo landetxea) erabilera eta gozamen eskubidea aldi baterako lagatzeko, landa ostatu izan dadin, eta taberna kudeatzeko**

Iragarki honen bidez, argitara ematen da osoko bilkurak 2025eko urtarrilaren 20an hartutako erabakia, Ibernaloko baselizako aterpetxearen (aurrerantzean, Ibernalo landetxea) erabilera eta gozamen eskubidea aldi baterako lagatzeko —landa ostatu izan dadin— eta taberna kudeatzeko Ibernaloko Andra Mariaren Kofradiarekiko hitzarmena onesteari buruzkoa, Sektore Publikoaren Araubide Juridikoaren urriaren 1eko 40/2015 Legean (SPAJL) jasotakoaren arabera. Honela dio, hitzez hitz:

Kanpezu, 2025eko .....ren ..... (a).

#### BILDU DIRA

Alde batetik, Ibernalo Txasko Basterra, Kanpezuko Udaleko alkatea den aldetik, 2024ko .....aren .....(e) ko osoko bilkuraren erabakiaren bidez hitzarmen hau egin eta sinatzeko ahalmena duenez gero.

Bestetik,..... jauna/andrea (NAN:.....), adin nagusikoa eta ..... (udalerrria/herria...) ko ..... kalean bizi dena, Ibernaloko Andra Mariaren Kofradiaren (IFK: .....) izenean eta ordezkari izan diren, 2024ko .....(e) ko .....(e) ko zuzendaritza batzordearen erabakiaren bidez ahaldunduta, erakunde horretako idazkaritzak emandako ziurtagiriarekin egiaztatu duenez.

Bi aldeek beren karguei dagozkien eginkizunak betez parte hartzen dute, eta hitzarmen hau sinatzeko gaitasun osoa aitortzen diote elkarri.

Hori guztia, Iker Urbina Fernández Kanpezuko Udaleko bitarteko idazkariaren aurrean, zeinak sinadurak kautotu eta egintzaren fede ematen baitu.

#### ADIERAZTEN DUTE

Lehenengoa. Ibernaloko Andra Mariaren Kofradia Kanpezuko udalerriko Ibernaloko baselizako aterpetxea hartzen duen higiezinaren jabea da. Eraikin horrek beheko solairuan jatetxea dauka, 176,69 m<sup>2</sup>-koa (katastro erreferentzia: 170136840000030002MV), eta lehenengo solairuan ostatua, 373,91 m<sup>2</sup>-koa (katastro erreferentziak: 170136840000030001KV eta 170136840000020001KT).

Bigarrena. 1999ko azaroaren 11n, Kanpezuko Udalak akordio bat sinatu zuen Gasteizko Gotzaindegiarekin (Ibernaloko kofradiaren ordezkari gisa), Udalak Ibernaloko baselizako aterpetxea zaharberritu eta birmoldatzeko obrak egin zituzten, gozamina 25 urterako lagatzearen truke, mendiko ostatu-aterpetxe-jatetxe gisa erabiltzeko, 28.807.130 pezetako zenbatekoan, gutxi gorabehera, BEZa aparte, eta zuzeneko adjudikazioarekin, ekonomia gaien elizbarrutiko kontseiluak ezarritako baldintzak onartuta.

Lagapena 2025eko otsailaren 2an amaituko da.

Hirugarrena. Kanpezuko Udalak adostutako obrak egin zituzten, eta Ibernalo landetxea kudeatu izan du kontratazio publikoaren legediaren arabera adjudikatutako kanpoko baliabideen bidez.

Laugarrena. Aldeak harremanetan jarrita, kofradiak adierazi zuen Kanpezuko Udalarik beste lagapen bat egiteko asmoa zuela, Ibernalo landetxea kudeatzeko interesik bazuen, eta hori kofradiaren 2024ko irailaren 29ko batzarraren erabakiaren bidez formalizatu zuen.

Bestalde, Kanpezuko Udalak adierazi du interesa duela kudeaketa horrekin jarraitzeko, interes publikokoa dela iritzita, inguruko turismo jarduerarako pizgarri eta laguntza delako, baita udalerritik harago ere.

Bosgarrena. Horren guztiaren ondorioz, Ibernaloko landetxearen lagapena gauzatu ahal izateko, eta interes publikoko arrazoiak daudela justifikatuta egonik, esku hartzen duten alderdiek, honako hau

#### ADOSTEN DUTE

Lehenengoa. Xedea.

Hitzarmen honen xedea da baldintzak ezartzea Ibernaloko Andra Mariaren Kofradiak Ibernaloko basilizako Ibernaloko landetxearen erabilera eta gozamina Kanpezuko Udalarari lagatzeko.

Lagapen horretatik kanpo geratzen dira higiezin horren beheko solairuko lokala, "ermitauaren etxebizitza" izenekoa, hirurogeita bost metro eta hogeita hemeretzi dezimetro koadrokoa (65,39 m<sup>2</sup>), eta solairu bereko "txokoa" izeneko lokala, laurogeita hemezortzi metro eta hogeita zortzi dezimetro koadrokoa (98,28 m<sup>2</sup>).

Lagapen horrek 4 urteko iraupena izango du, eta legez ezarritako epean luzatu ahal izango da, doan, higiezina landa ostaturako eta taberna kudeatzeko erabil dezan.

Bigarrena. Kanpezuko Udalak sendotasun, apaindura eta higieze egoera onean mantendu beharko du Ibernaloko landetxea lagapenak irauten duen bitartean, eta lagapenaren epea amaitzean baldintza berberetan entregatu beharko du.

Hirugarrena. Lagapenak irauten duen bitartean, ostaturak emateko eta taberna kudeatzeko jarduerak nagusiaz gain, Ibernaloko landetxean kultura jarduerak antolatu, egin eta sustatu ahal izango dira, espazio hori ezagutzera emateko eta haren erabilera sustatzeko. Salbuespen gisa, San Isidro eta Ibernaloko Andra Mariaren omenezko jaietan, mota horretako jarduerak eten egin daitezke, zalapartak edo beste arrazoi batzuek kultu ekintzak egitea zailtzen badute.

Laugarrena. Lagapenak irauten duen bitartean, udalaren kontura izango dira lagatutako eraikinari administrazioak ezar diezazkiokeen zerga eta tasa guztiak, bai eta higiezinaren erabileraren berezko gastuak ere, hala nola ura, argia, berokuntzarako erregaiak eta abar, baita higiezinaren kontserbazio arrunterako beharrezkoak diren gastuak ere.

Bosgarrena. Ibernaloko Andra Mariaren Kofradiaren kontura izango dira higiezinaren egiturazko elementuei eragiten dieten mantentze lanak, alderdi sinatzaileek kontrakoa adosten ez badute.

Seigarrena. Goian aipatutako baldintzak ez betetzea, higiezina ez erabiltzea eta/edo lagapenaren helburuak betetzeko ez erabiltzea arrazoi nahikoa izango da orain ematen den erabilera eta gozamenaren lagapena suntsiarazteko.

Era berean, aldeek, ados jarrita, higiezinaren lagapena suntsiarazi ahal izango dute.

Zazpigarrena. Hitzarmena aldatzeko araubidea.

Hitzarmen honen edukia aldatzeko, sinatzaileek aho batez adostu beharko dute.

Zortzigarrena. Jarraipen batzordea

Hitzarmen honen jarraipena egiteko, jarraipen batzorde bat eratu da, udalaren ordezkari batek eta kofradiaren ordezkari batek osatua.

Eta ados daudela adierazteko, aldeek honako hitzarmen honen bi ale sinatu dituzte, Kanpezun, 2025eko .....ren .....(e) an.

Santikurutze Kanpezu, 2025eko urtarrilaren 23a

*Alkatea*

*IBERNALO BASTERRA TXASKO*